

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### GAZEOKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

#### **Behin betiko onespena ematea etxeak edateko urez hornitzearen eta saneamenduaren tasa arautzen duen zerga ordenantza aldatzeari**

Kontzeju honek, 2018ko azaroaren 10eko bilkuran, hasierako onespena eman zion etxeak edateko urez hornitzearen eta saneamenduaren tasa arautzen duen zerga ordenantzaren aldatzeari. Horren iragarkia 2018ko abenduaren 12ko 143 zenbakiko ALHAOn argitaratu zen. Aldaketa hori jendaurrean egon zen bitartean erreklamaziorik aurkeztu ez zenez gero, behin betiko onetsi da.

Horregatik, 41/1989 Foru Arauak, toki ogasunak arautzen dituenak, 16 artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, argitara ematen da tarifen eranskina, indarrean sar dadin.

Tarifei dagokien ordenantza atala aldatzen da, eta honela idatzita gelditzen da:

#### **XIV. Ordenantzaren eranskina**

Tarifak. Zenbatekoa

Etxeko erabilera, kuota, m<sup>3</sup> ur.

0 – 150 m<sup>3</sup>/urte: 0,60 euro/m<sup>3</sup>

150 m<sup>3</sup>/urte baino gehiago: 0,80 euro/m<sup>3</sup>

Ordenantza honen aldaketa ALHAOn osorik argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, eta hala iraungo du aldatzea erabakitzen den arte.

Gazeo, 2019ko urtarrilaren 23a

*Lehendakaria*

*MIGUEL ANGEL BORGE PÉREZ*